

ABADEGINTZATIKO URTEURRENAK BEGOÑAN

Maiatzaren 24an, Jesu Kristo Abade Nagusi eta Betikoaren jaiegunean, ospakizun ederrean parte hartu genduan Begoñako Basilikan. Hainbat lagunek geure abadegintza gogoratu genduan. Eta gertaera handi horren urteurrenak alkartu ginduzan Jauna goratzeko eta berari eskerrak emoteko. Diamantezko (60 urte), urrezko (50) eta zidarrezko (25) ezteguak ospatzen genduzan.

Aurrenik, berbaldi mamintsua eta sakona eskeini euskun Teologian katedradun dan Eloy Bueno irakasleak, [“La propuesta del Papa Francisco: hacia una Iglesia bautismal y sinodal”] eta gero Eukaristia ospatzeko batu ginan, on Mario eta on Juan Mari gotzainak buru zirala.

Nik berrogeta hamar urte betetzen nebazan, eta Eukaristia-
ren amaieran hiru bertsook kantatu nebazan, esker onez:

Hirurogeta zortzia
 zinez urte bizia
 astinduz oinarria
 Europako herrietan
sutu da gazteria(2)
 Pariseko maiatzean
 isiotu da zuzia
 irudimen hazia
 boterea iraultzeko
arnas barriz josia (2).

Kontzilio ondorengo
 poz eta itxaropena
 eleizan sortu dana
 hamabost gaztek Bizkaian
haragitzen dabena (2)
 Peñascal parrokiatik
 bultzaka datorrena
 zerbitzurik gorena
 Jainkoa eta gure artean
zubi izan nahi dauana (2).

Berrogeta hamar urte
 artzaintza arduretan
 poz ta neke artean
 eta gaur esker oneko
ta bihotza bakean (2)

Jainkoa handi izan da
guztion bizitzetan
nahiz ta gu makal izan
horixe ospatzen dogu
gure Amaren oinetan (2).

Lontzo Zugazaga